

10 ARABA

Goiuriko ur-jauzia



Ingurumen-garrantzia

Altube ibaiaren adarra den Oiardo ibaiko urek Euskal Herriko ur-jauzirik ederrenetakoa da. Ehun eta bost metro erotzen da Gibijoko mendilerroko malda leunak zeharkatu eta gero. Nerbiokoaren ostean Euskal Herriko altuena da. Oiardo ibaiko uren higatze lanek denboraren

joanean zizelkatu ditu kareharrizko eta tuparrizko harkaitzak edertasun handikoa arroila hau osatu arte. Amildegia ipar-mazalean, hezeagoa eta freskoagoa bera, pagadi itzel bat aurkituko dugu. Hego-mazalean, haritza (*Quercus robur*) eta erkametza (*Quercus faginea*) dira haraneko

protagonista. Inguruan bizi diren animalia ugariren artean, aipatzekoak dira Altubeko baso honetan, etorri berria den okila (*Dryocopus martius*) eta baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*), penintsula osoan oso urria bera.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 0,5 km



15 min



Udalerria:

Urkabustaiz

Hurbileko herria:

Goiuri



Ibaia:

Oiardo



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo. Lurreko bide baliztua



650 m



0 m



592 m



50 m



Goiuriko ur-jauzia



Non dagoen eta nola heldu

Goiuriko ur-jauzia Arabako Lurralde Historikoaren ipar-mendebaldeko muturrean dago, Gorbeia Parke Naturalaren hego-mendebaldean, Gorbeialdeko eskualdean, Urkabustaiz udalerrian, Goiuri herritik hurbil.

Hasteko, Altubeko (N-622) autobidea hartuko dugu. Ondoren, Urduña-izarra (A-2521) errepidea, Goiuri herriraino. Iritsi baino lehenago, errepidearen eskuin aldean aurkituko dugu aparkalekua.



Bertatik ekingo diogu ederki balizatatuko ibilbideari Aparkalekutik, Bostehun bat metro egin eta gero, egurrez hesitutako pista bati jarraiki, hamar minutuan helduko gara aparkalekura. Hantxe aurrean dugu kareharriz eta tupazko hormatzarreen beheara erortzen den ur-jauzi zoragarria.

Bertatik, Goiuri herria ikusgai dago.

Bertakoa da Oiardo ibaiko Lamiaren elezaharra, haren adats luzea orrazten ispiluari begira erreka ondoan denbora ematen zuena.

Itzuliko bidea, bide beretik egin daiteke, baina badago beste aukera bat Goiuriko hiribarnetik trenbidea gurutzatuta, hala ere, arriskutsua da eta ez da komenigarria umeekin joanez gero.

Nerbioikoaren kasuan bezalaxe, edozein urtarotan egin daiteke bisita, baina ur-jauziaren ikusgarritasuna handiagoa izango da euri-garaian edo elurrak urtzean.



Deskargatu
ibilbidea:



KML



GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Wikiloc

Goiuriko ur-jauzia



Goiuriko ur-jauzia

